

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 29an hartutako erabakiaren laburpena: garapenean laguntzeko hainbat urtetako proiektuak egikaritzeko diru-laguntzeta-rako deialdia

BDNS (identifikatzailea): 316595

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke

Lehen. Onuradunak:

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundeek eskatu ahal izango dute diru-laguntza, baldin eta beren jarduera deialdi honen xedearekin bat badator eta baldintza hau betetzen badute: Gasteizen presentzia eta jarduera izaten jarraitzea.

Bigarrena. Helburua:

Garapenean laguntzeko bi motako jarduerak lagunduko dira diruz, 2017, 2018 eta 2019urteetan egikarituko direnak:

C Atala: giza garapenerako toki mailako proiektuak.

I Atala: giza eraldaketarako nazioarteko estrategiak eta garapenean laguntzeko programa berritzaileak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 3.600.000 euroko aurrekontua egokitu zaio:

2017ko aurrekontutik 1.200.000 euro.

2018ko aurrekontutik 1.200.000 euro.

2019ko aurrekontutik 1.200.000 euro.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

2016ko azaroaren 21a, barne.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 29a

Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
BLANCA GUINEA ASTOBIZA